

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

EGIAZTATZEN DU:

Orain arte izen ofiziala *Legutiano* duen udalaren euskal izena **Legutio** dela.

Ezaguna denez, herri honek hiri-gutuna jasotzean *Villarreal de Alava* izena hartu zuen eta, horren ondorioz, izen berri horrek lehenik zuen *Legutiano* ordeztu zuen.

Honela dio aipatutako dokumentuak:

...mandar poblar una villa en el lugar que dicen Legutiano que es en Alava porque sopimos por hombres bonos que era nuestro servicio e que haya nombre Villarreal de Alava...

XX. mendean Eusko Pizkundera galdutako herri izen asko berpizten saiatu zen, haien artean *Legutiano*. Ondoren, 1913an herrian inauguratutako batzokia *Legutianoko batzokia* izendatu zuten eta, ezaguna den bezala, urte batzuk geroago bertan izandako guduarengatik *Legutiano* izenak hedadura handia izan zuen. Euskaltzaindiak 1979an Euskal Herriko udalen izendegia aztertzean gogoan izan zuen 1961ean Jon Etxaide euskaltzain eta idazle ezagunak eginiko ekarpena. Etxaide jaunak zioenez, herri honi inguruko euskaldun batzuek *Lekutio* deitzen zioten. Halaber, Akademiak kontuan izan zuen zenbait lekutako euskaldunek erabiltzen zuten *Billerle* izendapena, alegia, *Villarreal* izen erromantzearen euskal aldaera.

Datu horietan eta euskal fonetikan eta grafian oinarrituta, Euskaltzaindiak 1979an herriaren euskal izendapenerako bi aukera eman zituen: *Legutio* eta *Bilerle*.

Akademiaren orduko irizpenak honela dio:

a) *Legutio* izendapenari dagokionez:

Que si bien es cierto que el topónimo que figura en la carta-puebla es LEGUTIANO y por lo tanto también se puede considerar como nombre propio histórico de la villa, la regla general del idioma vasco es la caída de la -n- intervocálica, deviniendo OTXANDIANO en OTXANDIO, OLANDIANO en OLANDIO (Mondragón = Arrasate), ZEBERIANO en ZEBERIO, LABIANO en LABIO (Navarra). Ejemplos similares son: TORRANO, en DORRAO (Navarra), MIÑANO en MIÑAO

en Álava; LAZCANO en LAZKAO (Guipúzcoa), GALDACANO en GALDAKAO en Bizkaia, etc. Lo que sucede es que en el caso de esa villa, al perderse el uso del nombre primitivo y adoptarse oficialmente por VILLARREAL, la evolución de LEGUTIANO en LEGUTIO ha de hacerse por analogía y no por refrendo de uso concreto en este término.

b) *Bilerle* izendapenari dagokionez:

Que por otra parte y en el caso de villas que se fundaron sobre aldeas con topónimo anterior, esta Corporación académica ha considerado conveniente respetar la duplicidad, atestiguada incluso en algunos casos en la literatura vasca desde la Edad Media: Mondragón: MONDRAGOE, junto a la aldea de ARRASATE; Plencia: PLENTZIA, junto a la id. de GAMINIZ, etc. Por ello respeta el uso popular de los euskaldunes o vasco parlantes de la zona que denominan a esa villa con el nombre de BILERLE, pronunciando quienes lo palatalizan: BILLERLE.

Udalak, ordea, nahiago izan zuen *Legutiano* izena eta 1980an ofizial bihurtu zuen. Euskaltzaindiak 2006an, Euskal Herriko udalen izendegia beraztertzean, egiaztatu ahal izan zuen herri honen inguruko euskaldunen artean *Legutio* aldaera nagusitu dela, *Bilerle* aldaeraren eta *Legutiano* izen ofizialaren kaltetan. Ondorioz, Euskaltzaindiak *Legutio* onartu zuen euskal izentzat eta Arabako Herri izendegia biltzen duen Akademiaren 140. arauan oin-ohar argigarri hau gehitu zen:

«Euskaltzaindiak 1979an *Legutio* = *Bilerle* proposatu zuen. Ezaguna denez, *Legutio* izena hiri-gutunean ageri den *Legutiano*-tik sortu zen, analogiaz, *Otxandiano* > *Otxandio* bilakaera eredu harturik».

Herriar izenari dagokionez, inguru horretan ageri den usadioari jarraituz, *legutioar* onartu zuen Akademiak.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon bi mila eta zortziko urtarilaren bostean.

O.I.



Andres Iñigo,
Onomastika batzordeburua